

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA KIROL ZERBITZUA.**

# **PROPOSAMEN IREKIAK**

**Egungo COVID19 neurri murriztaileen aurrean  
eskola kirolarekin jarraitzeko.**

**GFA. Kirol Zerbitzua.**

**Azken eguneraketa:**

**2020ko azaroaren 19a**

Agiri hau Gipuzkoan gauden Eskola Kiroleko eragile guztion artean osatu dugu. Bizirik dago. Guztion ekarpenen zain dago, guztiok batera bizi dugun egoera zail honetan eskola kirolarekin aurrera egin asmoz.

SARRERA.....	2
PROPOSAMENAREN OINARRIA.....	2
1. Eskola Ordu Barruko Kirol Jarduerak.....	3
1.1. Kirolean Hasteko Programa ( ).....	3
1.2. Kontaktu Gabeko Eskola Kirola ( ) . .....	4
2. Aisialdi ez antolatuaeren antolakuntza.....	5
2.1. Espazio Publikoaren erabilera.....	5
2.2. IKTetan (Informazio Komunikazio Tresnetan) oinarritutako aukerak.....	5
2.3. Egun garatzen ari diren esperientziak.....	6
3. Eskola Kirol Telematika.....	6
ETORKIZUNEN ERROREKEI BEGIRA: PROPOSAMEN BERRIAK.....	7

## SARRERA.

Lehendakariaren 2020/11/06ko DEKRETUAK<sup>1</sup> Lehendakariaren 2020/10/26 DEKRETUA<sup>2</sup> moldatu du. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzak, azaroak 11n, jarraibideak<sup>3</sup> eguneratu ditu. Eta Eskola Kirolerako<sup>4</sup> eta kirol profesional/semiprofesionalerako<sup>5</sup> azalpenak argitara eman ditu.

### **Horiekin guztiekin, ESKOLA ORDUTIK KANPO 6-16 URTE BITARTEKOENTZAKO ANTOLATUTAKO KIROL-JARDUERA egiteko aukera debekatzen da.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, berebiziko ahaleginak egin zituen ikastetxeko bizikidetzataldetan antolatzen den eskola kirola baimendua izan zedin. Eskatutakoa lortu ez denez, berehalakoan, Aldundia beste aukera batzuk eskaintzeko proposamenak egiten ari da.

## PROPOSAMENAREN OINARRIA.

Proposamen guztiek oinarri bera dute: **ikastetxeetako eskola kiroleko koordinatzaile eta hezitzaileek (ber)erabiltzea**. Horiek eskola komunitatearen erdigunean jarri nahi ditugu, familiei etengabe proposamenak eta erronkak eskainiz.

Jakitun gara hainbat ikastetxek eskaintza bera ez dutela abian ipini. Eta beste batzuk abian zirela eta ezin izan dutela aurrera eraman. Batzuentzako eta besteentzako, proposamena berbera da: Aldundiak eta udalak eskaintzen dituen gutxieneko baliabideak (eta etor daitezkeen, edo ez, kuoten sarrerak) berrerabili, ahal diren koordinatzaileak eta hezitzaileak lanean jartzeko.

Berrantolaketa horrek baliabide ekonomikoen berrantolaketa bat dakar:

- Aldundiak, 2021eko A1 diru laguntzaren baldintzak berridatziko ditu, hemen zehazten diren baldintzetan sartuko diren hezitzaileak eta koordinatzaileak diruz laguntzeko.
- Aldundiak udalei eskaera bera egingo die diruz laguntzen dituzten ikastetxeen hitzarmen edo/eta diru-laguntzetan baldintza berriak jaso ditzaten.
- Aldundiak ikastetxeei ere eskatuko die gurasoek ordaintzen dituzten kuotak berregokitzeko. Tokian tokiko baldintza eta aukeren araberako egokitzapena egingo da.

Badakigu hainbat udalerritan dagoeneko abian jarri dituztela neurri horiek guztiak, eta lerro hauen bidez horren berri eman nahi diegu gainontzeko eragile guztiei.

Proposamenak hiru multzotan biltzen ditugu.

1. Eskola ordu barruko kirol hastapeneko ekintzen programa.
2. Aisialdi ez antolatuaren prestaketa.
3. Tele Eskola Kirola.

---

<sup>1</sup> EUSKO JAURLARITZA. 2020/11/06 dekretua. ([Esteka](#))

<sup>2</sup> EUSKO JAURLARITZA. 2020/10/26 dekretua. ([esteka](#)).

<sup>3</sup> EUSKO JAURLARITZA. Jarduera Fisiko eta Kirol zuzendaritza. Galderak eta erantzunak. ([esteka](#)).

<sup>4</sup> EUSKO JAURLARITZA. Jarduera Fisiko eta kirol zuzendaritza. Eskola Kiroleko komunikazioa. ([esteka](#)).

<sup>5</sup> EUSKO JAURLARITZA. Jarduera Fisiko eta kirol zuzendaritza. Profesional eta erdi-profesional azalpena ([esteka](#)).

## 1. Eskola ordu barruko kirol jarduerak.

Dekretuak Eskola Kirola debekatzen du, alegia, eskola orduetatik at egiten diren ekintzak. Beraz, eskola ordutakoak baliatu behar ditugu eskola-umeen aktibitate maila sustatzeko. Bide horretan, bi proposamen zehatz ditugu:

### 1.1. Kirolean Hasteko Programa (6).

Gipuzkoako Aldundiak hastapeneko jarduera eskaintza zabala du, bereziki, federazioen bidez bideratzen dena, betiere eskola ordu barruan. Eskaintza sorta horren barruan, igerian hasteko kanpainak berebiziko garrantzia du Gipuzkoako ikasleentzat.

Aldundiak ikastetxeei programa hau lehentasunez sustatzeko proposamena egiten die, eta bereziki igerilekua duten udalei Igerian Hasteko Sustapen Kanpaina bultzatzeko deia ere egin nahi die.

Ondorengo taulan jasotzen dira, bi zutabetan berezita, eskola ordutan baimenduta dauden Kirolean Hasteko Jarduerak (BAI zutabea) eta eskola orduz kanpokoak diren ekintzak (EZ zutabea).

---

<sup>6</sup> GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Kirolean Hasteko Programa. ([esteka](#)).

KIROLEAN HASTEKO JARDUERAK.			
BAI		EZ	
Arku tiraketa	Txirrindularitza	Arrantza	Gimnastika
Beisbol eta softball	Txirrindularitzan hastea	Arraunketa	Gorputz-adierazpena
Boleibola	Pistako txirrindularitzan hastea	Automobilismoa (karting)	Gimnastika erritmikoa
Herri Kirolak	Mendizaletasuna	Badmintona	Gimnastika akrobatikoa
Igerian ikastea	Abentura anitza mendiko aterpetxean (inklusiboa)	Bela	Hip hopa
Izotz irristaketa:	Eskaladan hastea (inklusiboa)	Belar gaineko hockeya	Aerobika
Izotz gaineko irristaketa	Eskalada egokitua	Bola eta Toka	Aretoko dantzak (Latinoak)
Izotz gaineko hockeya	Espeleologian hastea (inklusiboa)	Errugbia (zapi errugbia)	Golfa
Piraguismoa	Mendi-ibilaldiak (inklusiboa)	Esgrima	Halterofilia
Surfa	Mendi-ibilaldi egokitua	Squash	Hipika
Surfa	Orientazioa (inklusiboa)	Tenis txikia	Igeriketa Artistikoa
Surf arrauna	Parke naturalak (inklusiboa)	Triatloia	UDA 2021
Trebezia eta abilezia motorrak zirku jardueren bitartez		Zesta punta	Judoa
		Sorospena	Kirol egokitua (Kirol aniztasuna)
		Uretako sorospena	Lerroko irristaketa
		Lehen sorospenak	Mahai tenisa
		Urpeko jarduerak	Padela
		Urpeko jarduerak Hastapena	Pool edo Karanbola Billarra
		Urpeko jarduerak Hobekuntza	Skate a
		Xakea	

## 1.2. Kontakturik gabeko eskola kirola (7) .

Ikastetxeko mugimendu premiei erantzuteko bidean, Aldundiak sortu zuen “**Kontakturik gabeko eskola kirola**” baliabide didaktikoak oso erabilgarriak suerta daitezke bai patioak dinamizatzeko eta baita Heziketa Fisikoko saioetarako ere. Azpimarratu behar da, COVID19ari aurre egiteko hainbat neurrik ikasleen mugikortasuna eta zirkulazio librea mugatzen dutela, eta beraz, ezinbestekoa suertatzen dela hori konpentsatuko duten neurriak abian jartzea.

<sup>7</sup> GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA. Kontaktu Gabeko Eskola Kirola ([esteka](#)).

## 2. Aisialdi ez antolatua prestaketa.

Atal honetako irizpidea da ikastetxeko koordinatzaileek eta hezitzaileek eskola-umeen aisialdian egin daitezkeen aisialdi libreko ekintzen proposamenak garatu, komunikatu eta sustatzea.

Gogoratu SARS-CoV2aren neurri mugatzaileek aisialdiko zirkulazioa mugatzen dutela, eta kirola eta ariketa fisikoa bakarka edo bizikidetza taldeetan egin beharra dagoela. Beraz, mugapen horrek garamatza familian egitekoak izan daitezkeen jarduerak bultzatzera.

Eskola-umeekin eta familiekin komunikatzeko bideak desberdinak izan daitezke. Sare sozialak erabiltzeko aukera dago, betiere ikuspegi kritiko batekin. Ikuspegi hori garatzen duen GIDA<sup>8</sup> honek lagun zaitzake.

Aisialdi ez antolatua prestatzeko ildoan proposamen hauek egiten dizkizuegu:

### 2.1. Espazio publikoaren erabilera.

Tokian tokiko eskola kiroleko eragileei proposatzen diegu espazio publikoak eskaintzen dituen baliabideen bilduma bat eta bakarra osatzea udalekin batera. Baliabide bateratu horiek herritarrei eta familiei bidali zaizkie haien erabilera sustatzeko.

Bilduma horiek ondorengo guneetatik bil daitezke:

- Gipuzkoako mendi xenda homologatuen webgunea<sup>9</sup>.
- Gipuzkoako oinezko eta bizikletako bide sarearen webgunea<sup>10</sup>.
- Jarduera Fisikoa egiteko natura guneen bilduma: ibai eta hondartzak, basoak, Gipuzkoako eskalada-guneak<sup>11</sup>.
- Gipuzkoa Turismo webguneak natura-jarduerak eta familia planak proposatzen ditu<sup>12</sup>.
- Espazio publikoko gune batzuk jolas-jarduera zehatz batzuetarako erreserbatu, markatu eta prestatu daitezke familiei eta umei jolas-gune eta uneak eskaintzeko.

### 2.2. IKTetan (Informazio eta Komunikazio Tresnetan) oinarritutako aukerak.

Aire zabalean erabiltzekoak izan daitezkeen IKT tresnak hauek dira:

[PokemonGo](#)

[Geocaching](#)

[Wikiloc](#)

<sup>8</sup> ALDUNDIAK ETA EUSKO JAURLARITZA. Teknologia digitalen erabilera arduratsua izateko gida, kirol erakundeetan adingabeekin ([esteka](#))

<sup>9</sup> GIPIZKOAKO PARKETXE SAREEN FUNDAZIOA. Gipuzkoako mendi xenda homologatuen webgunea. ([esteka](#)).

<sup>10</sup> GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamendua. ([Esteka](#)).

<sup>11</sup> GIPIZKOAKO MENDI FEDERAZIOA. Gipuzkoako Eskalada guneak. ([esteka](#)).

<sup>12</sup> GIPIZKOA TURISMOA. ([esteka](#)).

Horiek denak eskola kiroleko eragileekin batera garatu ahalko dira, haiek izan daitezten, baliabideak zabaltzeko aitzakiarekin, familiekin eta ikasleekin hartu-eman sarea mantenduko dutenak.

### 2.3. Egun garatzen ari diren esperientziak.

Egoera berriari erantzunak emateko asmoz, hainbat eskualdetan konponbideak proposatzen ari dira. Berriak diren heinean, batzuetan ez dira guztiontzako baliagarriak izango, baina, geldirik ez dagoen harriari,...

**OARSOALDEKO ESKOLA KIROLA.** ([esteka](#)) Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzunek osatzen dute eskola kiroleko esparrua. Udalek eta ikastetxeek etengabeko hartu-eman sare trinkoa dute. Sare hori egoera berrira moldatzeko estrategia desberdinak garatzen ari da: Teleskola bilera, 11 ikastetxe 11 tontor,...

**LEINTZ ESKOLA KIROLA.** ([esteka](#)). Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaiok (Araba) osatzen dute eskola kiroleko esparru hau. Bertako sareak ere eskola kirolari eusteko aukerak bilatzen ari dira. Astean behin, gurasoei eta umeei ekintza proposamenak bidaliko dizkiete. Batzuetan ekintza komunikatiboak, besteetan erronkak, formazio telematikoak eta abar.

**LASARTE-ORIAKO ESKOLA KIROLA**<sup>13</sup>. [SAKATU dinamika](#). Bertan, programazio berri bat diseinatu dute eta astero hurrek bideo bat jasoko dute. Bideo horretan ariketa eta jarduera desberdinak egongo dira, beraien begiralearekin harremanetan jarraitzeko eta kirolaz gozatzeko. Bideoak eskola kiroleko egun eta ordu berean jasoko dituzte, baina aukera dute beste egun edo ordu batean egiteko. Lasarte-Orian kirol jarduerak egiteko eremuak jarri dituzte herriko plazetan. Hortaz aparte, ekintza gehigarriak egongo dira (mendia, bizikleta, zumba, dantza, orientazioa, natura ezagutzea)

**DONOSTIAKO ORIXE IKASTETXEA.** PADLET aplikazioa<sup>14</sup>. Multimedia artxibategiak partekatzekeo webgunea da. Norberak bere post-it delakoak zintzilikatu eta besteenak ikusteko leku kolektiboa. Ikasleekin batera partekatu daiteke eta erronka bideoak ipini daitezke. Erronka horiek aire librea edo etxean egingo dira eta, ondoren, aplikazioan jarriko dira gainerakoekin partekatzekeo.

**OÑATIKO ESKOLA KIROLA.** Proposamenak egin dituzte: Pista jokoak; adibidez, altxorren bilaketak.

**BERGARAKO ESKOLA KIROLA.** ([esteka](#)). Mendi irteerak erronka gisa planteatu dizkiete eskola-umeei eta beren familieei.

## 3. Eskola kirol telematikoa (15).

Aisialdia gehiago mugatuko luketen araubide murriztaileen aurrean, Aldundiak TELE ESKOLA KIROLA baliabide telematikoa garatu du. Bertan bereziki sustatu nahi da taldekideen arteko harremana, eta gutxieneko ekintza proposamen batzuk ipintzen ditugu eskola kiroleko komunitatearentzat.

<sup>13</sup> TTAKUN. Sakatu dinamika. ([esteka](#)).

<sup>14</sup> PADLET aplikazioa ([esteka](#)).

<sup>15</sup> GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. Eskola Kirol Telematikoa. Orain arte osatutakoa. Aurki webgunean. ([esteka](#)).

## **ETORKIZUNEN ERONKEI BEGIRA: PROPOSAMEN BERRIAK.**

Hemendik aurrera garatzen hasiko diren proposamenak jaso eta helarazi nahi dizkizuegu eskola kiroleko eragileei. Horretarako, edozein berrikuntza edo proposamen [kirolak@gipuzkoa.eus](mailto:kirolak@gipuzkoa.eus) helbidera bidaltzea eskertuko genizuke.